

**EUSKAL HIRIA KONGRESUA / CONGRESO EUSKAL HIRIA**

2015-11-23 Bizkaia Aretoa 23-11-2015

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintariok, herri ordezkariok, jaun andreok, egun on.

Sailburuak azaldu bezala, gaur gure lurraldearen antolamenduaren berrikuntza prozesua abiarazi nahi dugu. Etorkizuneko ikuspegia konpartitzea eta adostea proposatu nahi dugu.

Aurreneko helburua lurralde beraren lehiakortasuna indartzea da. Hau da, lurralde kohesionatua eta adimentsua. Gizartearen beharrei erantzuten dakiena, baita ere kanpo harremanak errazten dituen. Lurralde modernoa, barne eta kanpo konektibitatea garatzen duena, iraunkortasuna bermatuz.

Bigarren helburua lurralde lankidetzaren sustatzea da. Euskadi – Basque Country estrategia; lurralde, hiri eta herri guztien arteko lankidetzaren estrategia bat da. Etorkizunerako guztion proiektu bat adostu behar dugu, Ardatz Atlantikoan, Europan eta mundu zabalean gure posizioa indartzeko. Herri txikia gara, etorkizunari begira hazteko elkarlana behar duena.

Agradezco la organización de este Congreso Euskal Hiria 2015. Supone el inicio del proceso participativo para la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio. Contamos con dos años por delante para actualizar de forma integral unas Directrices aprobadas en 1997.

Creo en Euskal Hiria. Creo que nos conducimos a un mundo de espacios urbanos y territorios competitivos. Espacios que demandan equilibrio e integración humana y territorial.

En este escenario futuro Euskal Hiria supone la apuesta por un territorio competitivo. Un territorio con calidad urbana y que protege el espacio natural; sostenible y activo en el ámbito rural.

Un territorio que facilita la movilidad interna y la conectividad exterior. Con puertos, aeropuertos, conexiones ferroviarias y viales internacionales. También con una trama de comunicaciones internas que cosa el territorio.

Un territorio inteligente, con infraestructuras tecnológicas y centros de conocimiento, ciencia e innovación. Con equipamientos y servicios públicos cercanos y de calidad.

Un territorio integrado y cohesionado socialmente. También entre sus pueblos, ciudades y territorios.

Necesitamos un territorio competitivo y para competir tenemos que cooperar. El futuro es la cooperación entre los territorios vascos y las ciudades vascas. El Congreso Euskal Hiria, esta reflexión abierta sobre la revisión del modelo territorial, es una invitación a compartir un mismo proyecto de País.

Euskal Hiria pauso bat da, Lurraldearen Antolamenduko Gidalerroak berrikusteko, prozesu parte-hartzailearen hasierako pausoa.

Politika publikoak eta gobernantza kudeatzeko modu berriaren ikuspegitik aurkezten ditugu gure proposamenak.

Bost ikuspuntu kontuan hartzen dituen lurralde-eredua proposatu nahi dugu:

-Lurralde adimentsua: anitzagoa, konektatua, eta ezagueraren, sormenaren eta berrikuntzaren adabegiei irekia dagoena.

-Lurralde jasangarria: finkapen trinko eta konpaktuagoa duena, orekatuagoa eta energetikoki efizienteagoa dena.

-Lurralde sozial eta integratzailea: ingurune irisgarri eta osasuntsuagoa, eremu degradaturik gabea.

-Harremanak dituen lurraldea: Europako ardatz atlantikoaren gunea, Natura 2000 ekologia-sareko partaidea.

-Lurralde parte-hartzailea: gobernantza berriari eta kudeaketa publiko integratuari irekia.

Nos corresponde diseñar esta estrategia común y compartida, con la vista puesta en Europa y en nuestra posición en el Arco Atlántico Europeo.

Miramos a Europa y nuestra referencia son las ciudades y comunidades inteligentes. El concepto de “smart city” es una referencia de futuro para Euskal Hiria. Entronca con nuestra estrategia de desarrollo humano y crecimiento sostenible.

Vamos a primar los proyectos de solución sostenible en energía, tecnología digital, transporte público, infraestructuras y redes inteligentes. La referencia de Euskadi es Europa, el impulso a la comunidad y la comunicación inteligente.

Asumimos los objetivos planteados en Horizonte 2020, los programas de actuación en los ámbitos de “Energía limpia, segura y eficiente”, “Transporte inteligente, verde e integrado” o la “Estrategia de cambio climático”.

En el horizonte contamos con la puesta en marcha de la Alta Velocidad en 2019. Es una oportunidad para la integración territorial y la conexión con la estrategia del corredor ferroviario europeo. Esta es una oportunidad a la que se suma también el Gobierno de Navarra, interesado en la conexión con la red de Alta Velocidad y el corredor atlántico.

Etorkizunari begira, 2019an Abiadura Handiak lurralde-integrazioa gauzatzeko aukera eskaintzen digu. Nafarroako gobernua ere bere egin du aukera hori, izan ere abiadura handiaren sarearekin eta Europako korridore atlantikoarekin lotzeko interesa agertu baitu.

Europari begiratzen diogu, hiri eta komunitate adimentsuak dira gure erreferentzia. "Smart city" kontzeptu europarra etorkizunerako erreferentzia da Euskal Hiriarentzat. Giza garapenerako eta hazkunde jasangarrirako gure estrategiarekin uztartzen da. Euskadik Europa du erreferentzia; hau da, komunitatearen sustapena eta komunikazio adimentsua.

Tenemos que seguir modernizando y planificando el futuro de nuestro territorio. Avanzar juntos en la definición técnica de las Directrices para un Territorio: inteligente, sostenible, social e integrador, interrelacionado y participativo.

Nuestra responsabilidad es planificar el futuro territorial de forma compartida. Este es el espacio en el que se produce la vida de la sociedad vasca, actual y futura. Nos corresponde garantizar el desarrollo humano y el crecimiento sostenible, pensando hoy en el legado a las generaciones de mañana.

Este es el momento de Euskal Hiria, de la participación y la inteligencia, de la integración y la garantía de sostenibilidad.

Gaur Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspena abiarazi nahi dugu. Etorkizunerako bi sektore uztartu nahi ditugu: giza garapena eta hazkunde iraunkorra. Elkarlanaren bidez adostu behar dugu Euskal Hiriaren etorkizuneko ikuspegia.

Eskerrik asko guztioi parte hartzeagatik.